

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida




















Emakumearen Nazioarteko Eguna Martxoaren 10ean irteera egingo da. Goizean Santxotenako museoa bisitatuko da Arizkunen (Nafarroa), ondoren Elizondon bazkaria, musika eta arratsaldean Elizondoko txokolatea dastatzeko aukera izango da. Izen emateak Aurrera Plazako Udal Bulegoetan eta Liburutegian, 28 eurotako ordainketa eginez.

Liburua eta DVDa Udaletxean eta Udal Bulegoetan eskuragarri dago Zizurkilgo Historia liburuen bildumako bigarren alea, hots,1615-1800 urte bitarteko historia biltzen duena. Era berean, Zizurkilgo herriari buruzko DVDa salgai dago 5 euroren truke.

















